



Kaya Gama. 1st.

King James 1st

Antolatzailea / Organiza
Zarauzko Udala

Testua / Texto
Anjel Lertxundi

Itzulpena / Traducción
Idoia Santamaría

Argazkiak / Fotografías
Ricardo Iriarte

Diseinua / Diseño
Arantxa Beobide

Argitaratzailea / Editor
Zarauzko Udala

Azaleko irudia / Imagen Portada
IZENIK GABE. 100 x 81 cm, 2019

Lege Gordailua / Depósito Legal
D 00541-2023

Iñigo Ormazabal

IÑIGO ORMAZABAL

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

2023



UZTAILAK 13 JULIO - IRAILAK 24 SEPTIEMBRE

EGUNERO / TODOS LOS DÍAS

18:00 - 20:00



ZARAUZKO UDALA

KULTURA DEPARTAMENTUA



CLAUDIO RODRÍGUEZ. Olioa ehun gaínean - 146 x 114 cm, 2000

Iñigo Ormazabal, soseguaren artea

Anjel Lertxundi

BAT

Argitasuna beti dator zerutik.
Dohain bat da; ez dago gauzen artean,
haien oso gainetik baizik.
Claudio Rodríguez. *Horditasunaren dohaina*

IÑIGO ORMAZABAL GOGOTSU ari da lanean. Imajinazioak edo senak laguntzen ez dioten egunetan ere, lanean segitzen du: inspirazioak ez du hitzordurik.

Aldian behin, artistak pare bat pauso ematen ditu atzera, perspektiba urrunago batetik begiratzeko pintatzen ari den koadroari. Begiak kizkurtzen ditu. Hurbiltzen da berriro oihalera, eta zuzentzen, egokitzen, indartzen ditu ahul ikusi dituen zati batzuk.

Claudio Rodríguez poeta ezagutu zuenetik, askotan izaten ditu gogoan haren poema bateko hitzak: «argitasuna dohain bat da»-. Poetaren hitzak eta Goyaren edo Van Gogh-en argitasuna ditu Ormazabalek eredu. Tamalez, ordea, argitasun propioa lortzeko dohaina ez da doakoa. Lan handia eskatzen du. Bizi osoko ahalegina.

Artistak berriro egin ditu pare bat pauso atzera eta oihalari begira egon da hainbat denbora. Ostera hurbildurik, zuzenketa eta ukitu txiki batzuk, huskeriak ematen dutenak, egin dizkio lanari maitasun-xera halako batez. Definitibotzat jo du koadroa. Lehortzen denean ia bigarren etxea duen Zarauzko *Ispilu* galeriara eramango du. Koadroa han hasiko da egiten bere bidea. Ikusleen aurrean.

IA ARRATSALDERO BEZALA, ikasleak sartu dira estudioan. Horra Ormazabal, ikasleen bere pintura-printzekin zipritindutako amantala jantzita: bizi beharra dago, garai guztiak baitira zailak artista batentzat. Baina eragozpenak eragozpen, atsegin du klaseak ematea. «Ikasleekin ikasten diat gehien», esan ohi du. Ezer inposatu orde, aukera estetikoak ematen saiatzen da.

Ikasleek begirunea diote Ormazabali; pintoreak, errespetua ikasleei. Oso modu xumean mintzatzen da arteari buruz ikasleekin bezala lagunekin ere; hitz puzturik gabe, modu ulergarrian. Deserosoa egiten zaio bere koadroez mintzatu beharra. Zerbait galdetuz gero, keinu iheskor bat ateratzen zaio, esanez bezala: “Koadroei galdetu”.

BADA HILABETE Ormazabalek aipatu koadroa bukatu zuenetik. Orain galerian dago lanaren emaitza, eta gaur-koan ni naiz, hainbat ikusleren artean, koadroaren aurrean dagoena. Badaramat denbora pixka bat bertan. Hurbildu eta koadroak alboan duen oharrari begiratu diot. Izenik gabea da obra. Ormazabal ez da koadroei izena jarri-zalea. Koadro bati izena emate hutsak ikuslearen pertzepzioa eta juizioa baldintzatzen omen ditu.

Hartan, berriro oihalaren aurrez aurre nengoela, 'ederra koadroa!' entzun dut nire baitan. Artistaren intuizioak edertzat zeukana ederra iruditu zaio ikusle honi ere. Eta ederra izateaz gainera, atsegina. Badira koadro eder askoak larritasuna, sentipen deserosoak, ziztadak, melankolia, egonezina eragiten dituztenak. Aurrean daukadan Ormazabalen obrak, ordea, sosegua eragiten dit. Bizi-poz intimoa. Egonarria, iparra galduta dabilen mundu batean. Iñigo Ormazabalen ia obra guztiak horixe du ezaugarri nagusietako bat: barne-baretasun halako bat transmiti -tzen dio ikusleari. Sosegu estetiko oso eskuzabal dago barreiatua bere obran.

BI

Nigan gorputz bihurtzen den argia [...]
maitasunean bezala soseguan.
Claudio Rodríguez, *Argi bat*

EDORTA KORTADI ARTE KRITIKARIAK dio pintoreari buruzko artikulu batean: «70ko hamarkadan hasten da Iñigo Ormazabalen ibilbidea, Figurazio eta Errealismo Berriak sortzen diren garaian eta gerra osteko korronte abstraktuak ondo finkatu direnean», eta Kortadik eranstean du: «Bi korronte horien artean» ibilia da Ormazabal.

Natura -bizitza- ulertu nahi estetikitik dator abstrakzioa, naturak gonbidatzen gaitu beste pauso batzuk ematera, aukera desberdineko bideak saiatzera. Eboluzionatzen du bizitzak, eboluzionatzen du arteak. Abstrakzioak ez du natura baztertzen, baizik naturaren noranahiko leihoeetatik begiratzen: naturan ere badago abstrakziorako iradokizun franko lainoen forma desberdinetan, hostoen mugimenduan, zingiretan bezala zelai oparoetan, ha-rearen testuran, itsas-gaineko urak etengabe hartzen dituen formetan, gure buru-barruko joan-etorrien logikan bezala gure izaeraren kaosean ere...

Natura eta abstrakzioa elkarrekin dira: konkretuaren ifrentzua da abstraktua. Garai batean, arte abstraktuaren hastapenetan, polemika handiak izan ziren korronte berriaren zilegitasunaz, baina artearen historia osoan egon da abstrakzioa, historia osoan figurazioa ere. Neolitikotik ezagutzen ditugu bata bestearen ondoan.

ARTEAK, KONTU JAKINA DA, edertasuna lortzea du helburu, ez ontasuna. Koadro baten aurreko gure juizioak, gure sententzioak, gure erreakzioak estetikoak dira, ez moralak. Edertasunak sugestionatu egiten gaitu; koloreen armo-niak zein kaosak; kolore-kolpe eta konbinazioen dinamismoak; trazuen mugimenduak; konposizioak...

Halako elementuen enkontrua da koadro eder bat. Obra bat, iradokizun misterioitsuak barreiatzen zintzilik dagoen hormatik. Biluzik dago: emantzipatu egin baita, 'hemen nago' esaten ari da bere aurretik pasatzen diren ikusleei.

Koadroa deus gutxi da ikuslearen begiradarik gabe. Ikusleak, berriz, ez daki zer eman dion koadroak, baina, ia oharkabea, zerbait geratu da bere pertzepzio estetikoan. Halako esperientzien metaketak bihurtzen du ikusle bat artezale.

HIRU

Argi okre honek, zeina laguna baitut
maitasunezko eta soseguzko jardunetan,
indarra hartzen du nire ahuleziaz.
Claudio Rodríguez, *Argi bat*

DANIEL TXOPITEA pintoreak ondo ezagutzen zuen Iñigo Ormazabal adiskidearen lana. Honela dio Ormazabalen pinturaz Zarauzko hainbat artistari egindako elkarrizketen *Zarautz bihotz-bihotzetik* liburuan:

«Ormazabalen lantegiari emandako lehen begiradak kaosa iradokitzen du; bertan mihiseak, koloreak, paperak, erremintak, liburuak eta sorrera edo helburu ezezaguneko beste produktu askok maiztertzarik ezaren edo antzinako errenten pribilegioa eztabaidatzen duela dirudi. Hori ikusten duena oker dago». *Maiztertza eta antzinako errenta* aipatuz, tradizioaz ari da Txopitea. Baina hobeto begiratzen bazaio Ormazabalen kaos horri, maisu-erlojugile baten tailerraren antza hartzen zaio estudioari, eta, talaia horretatik begiratuta, erlojugileak hainbat pieza txiki elkartzu lortzen duen erloju baten zehaztasuna hartzen du Ormazabalen koadroetan. Kaosetik, ordulari on baten prezisioa, beraz. Txopiteak jarraitzen du: Ormazabalen pinturak erlojuaren «konparazio hori onartzen du; abstrakzioak tratamendu ordenatu bat, kolorea eta konposizioa zaintzen dituen, erakusten du».

1997AN, ORMAZABALEN OKREEN SASOI BETEAN, egin zion Txopiteak elkarrizketa pintore lagunari. Iragan mendeko azken urteak eta mende berriaren hasierakoak heldutasun beteko urteak izan ziren Ormazabalentzat, etekin gogokoak ikusten hasia zegoen egiten ari zen bideari. Aukera berriak sendotzen saiatuko da mende berrian, ordukoexa da Ormazabalek Claudio Rodríguezen omenez egindako koadroa.

Lur, hondar eta hare-harrietako okreen eskala kromatiko guztia gogoz barreiatua dago Ormazabalen obretan, batez ere abstrakzioan. Ondo menderatzen ditu okre desberdinen aukerak, gero eta malgu ausartago jokatzeko hasiko da okreak beste koloreekin ezkontzeko orduan: urdin biziek, berde ausartek, bermiloia bezalako gorri txinpartatsuek okreen kontrapuntuan hartzen dute indarra...

IA AZKENERAINO jardun zuen bide horretatik halako koherentzia kromatiko eta formal bat emanez bere lanari. Plano bakar batean elementu heterogeneoekin jokatzeko, horra seguru asko bere bizitza artistikoan egin zuen lan berritzaileena: ugaritasun kromatikoa collagerako material puru gisa erabiliz, paper eta kartoi pintatu ezin finagoak integratuz. Konposizio harmoniko bat lortzea izaten zuen helburu, gehienetan okrea abiapuntutzat hartuz eta lurraren okreetatik naturaren beste kolore distiratsuak –lurraren emaitzak haiek ere– barreiatuz koadro bakoitzaren unibertsoan.

Ormazabalen oihal okreek –zilegi bekit horrela laburbiltzea bere lanaren alde inportanteena– objektu desberdinez osatutako collageak dirudite; batzuetan ez dira, izatez, collageak, nahiz koadroek eragindako efektuak hala iradoki; beste batzuetan, orde, badira benetako collageak, baina halakoetan ere ikusleak apenas nabarmenduko duen paperik, kartoi finik, kola itsasgarririk, zapi delikaturik edo esprairik oihalean. Koadro bakoitzak collagerik gabeko oihal hutsa dirudi, koloreak direlarik plano desberdinak, koloreek ematen dietelarik bolumen itxura forma karratu zein errektangularrei, okreak beste koloreekin konbinatuz, formen eta koloreen kontrasteak bilatuz eta, Txopitearen metafora baliatuz, erloju baten prezisioarekin kontrolatuz koadroaren harmonia.

HALATAN, HURRENGO FASE BATEAN –bere ibilbidearen azkenetan– estilizatzen ere hasiko da hain ondo menderatzen duen eskema. Koadroaren hondoan, poetikoa edo espirituala deituko niokeen paisaia bare bat: oso da lan delikatuia, bakea barreiatzen du. Artistak ohiko koloreak erabiltzen segitzen du, baina haien tonu eta gama sentikorrenek baliatuz. Eta sosegu betea sentituko genuke ikusleok ere baldin aipatutako koadro berrien erdialdean, ezkerretik eskuineraino, tximisten edo argi-harien edo zeruko urraduren edo hesi-txarrantxen moduko marra nahiko mehe batek protagonismoa hartuko ez balu hondoko paisaia abstraktuaren baretasun ezin ederragoa urratuz. Agian mehatxu bat da ezkerretik eskuinerako marra. Izan liteke arrisku baten abisua ere. Edo paradisuaren ukazioa (txarrantxa batzuek holokaustoa iradoki diezaioke ikusleari).

AZKEN URTEETAN, antzeko bide ilunetik, kolore grisak eta beltza ere erabiltzen hasi zen, ordu arte kolore bizi-ekin jolasten ziren okreak giro goibel batera behartuz.

Imajinatzen dut Ormazabal bere buruarekin hizketan pintatu berri duen hain paisaia ederra txarrantxarekin *zigortzeko* momentuan: «Orain arte pintatu dudana paisaiarik gogokoena sakrifikatzen ari nauk koadro hobeago bat sortzeko».

Zalantza eta zalantzari bilatutako aterabideak ere artea dira, zalantza da beharbada erabaki artistiko eraginkorrenen giltza. Artista baten egia ez baita bizi osoan bat eta bera, ez baita pitzadurarik gabea. Bizitzaren eta pentsamenduaren zirkunstantziek begirada aldatzen dute, nahiz aldaketa inoiz ez den erabatekoa izaten: artista bera dago ibilaldi artistiko oso baten etapa bakoitzean.

Beharrezkoa da, beraz, aldaketaren irakurketa estetikoa egiten saiatzea: agian artista aitorten bat egiten ari zaigu –bere obrari kemen berria bilatu nahi dion artista baten zizti-zazta, *pentimentum* bat-. Arrisku berriak hartzen hasita dago artista ordu arteko lana zalantzan jarritz, paisaia abstraktu sosegatuak hesi-txarrantxekin urratuz, bizitzaren alde ilunari presentzia erasokorra emanez pintura beltzarekin.

Ormazabalen saio okreen azken aldiko hainbat koadro ohi baino ilunagoak dira, baina, hala ere, ez dute sosegua zeharo uxatzen: iluntasuna ere bizitzaren parte da.

LAU

Hareen eta aparren artean,
zer da errendizioa eta zer gailentasuna?
Zerk sosegatzen gaitu eta zerk tormentatzen:
itsaso leunak ala lur zakarrak?
Claudio Rodríguez, *Itsasoaren aurrez aurre*

PAUL VALÉRYK DIO *Itsas zimitarioa* poeman... «Itsasoa, itsasoa, beti bera, beti desberdina». Iñigo Ormazabalen marinetako itsasoa ere halaxe: beti bera, beti desberdina.

Jende askok marinengatik ezagutzen du Iñigo Ormazabal. Itsasoaren bertsio guztiak -ilunak eta argiak, biziak eta bareak- pintatu zituen, bere gogoz batzuetan, bezeroek eskatuta hainbatetan. Egunerokotasunak bizi beharra dakar berarekin, eta Ormazabalek, udan bereziki, marinak pintatzen zituen. Morrontza bat al zen bere ibilbidean? Jakiteak ez du garrantzirik, utzi digun ondareak baizik.

Wayne Wang zinegilearen *Smoke* filmeko tabako-dendako nagusia bere dendari egunero-egunero ateratzen zizkion argazkiak iradokitzen didate Iñigo Ormazabalen marinek. Iradokitzen didate Juan Luis Mendizabal *Mendik* ia egunero pintatzen zituen formatu txikiko koadroek ere *Desertu Txikiko* paretik Getariara begira. Baina biek, Ormazabalek eta Mendizabalek, itsaso «beti bera eta beti desberdina» pintatu zuten?

Bai eta ez. Mendizabalen pinturetan itsasoak lehorra du erreferentzia, Getariako San Anton mendiak eta Zarauzko Moilarrrik konkretatzen dute itsasoa. Baina Ormazabalen koadroetan ez dago lehorreko erreferentziarik. Lau elementu daude Ormazabalen marinetan: hondar busti aldakorra, itsasoa, zerua, eta laugarrena da ez dagoela lehorrik, ezker-eskuinetan ez dagoela Getariaren edo Moilarriren mugarik.

Lehorraren presentziak konprezioa dakar, identifikazioa. Lurrik ez ikusteak, aldiz, askatasuna, muga-gabetasuna. Ormazabalek itsasoa *bere bakardadean* pintatu badu, infinituaren ideia biribiltzeko da. Lehorra finkoa da, irmoa. Harea, ordea, okrea izateaz gainera, hezea da, eta gehiago hurbiltzen da uraren eta airearen izaera mugikorretara, lurraren iraunkortasun trinkora baino. Lehorra ez da egun batetik bestera, goizetik gauera, ordu batetik bestera aldatzen. Harea, ura eta olatuak, zerua bere lainoekin, etengabe aldatzen dira. Haien koloreak eta formak ere halaxe: ez dira errepikatzen, beti dira berriak.

Zerua, itsasoa, itsasertzeko harea aldakorrek dira, originalak noiznahi. Beti berak izanda, beti desberdinak: eguraldia nolako eta eguzkia non, beti berriak kolore, tonu, forma eta gainerako ñabarduretan. Itsasoak eta zeruak, itsasoak eta hareak non dute muga, non hasten da bat eta non bestea? Zehaztu eta definitu ezin diren mugak dira begiradarentzat, infinituak ia. Gutxi-asko, gure baitako sentimendu desberdinekin gertatzen zaigun antzera.

BEZERO BATEK -arte-zaletasuna du arte munduarekin lotura bakarra- Ormazabalen pintura ezagutu zuenean, zalan-tza izan zuen koadro handi bat erosi edo sei txiki. Abstraktuak ziren koadro handia zein txikiak. Pintoreak prezio berean eskaini zizkion handia edo txikien lotea. Zalantza askoren ondoren, lagunak sei koadro txikien aukera egin zuen.

Ordutik, etxeko pareta oso bat hartzen diote sei koadroek. Aldian-aldian aldatu egiten du beren arteko erlazioa eta baita seiekin berritzen dituen formak ere, A baten gisako eskailera bat irudikatuz batzuetan, eskailera buruz behera jarritz gero, olatuen kadentzia emanez, mural bat osatuz... Aldaketa bakoitzak koadroen arteko lotura desberdina hartzen du koloreen, formen, tonuen arabera.

Bezeroak, koadroen arteko antolamendua berritzen hasi zen lehen aldian, koadroetako batek goiko partean zeraman mantxa bereizi bati erreparatu zion. Pentsaturik hitzen bat izan zitekeela, koadroaren izenburua inondik ere, lupa hartu eta *Secuencia* irakurri zuen bertan. Fijatu zen beste koadroetan ere, eta bigarren batek hiru hitzekin osatutako mantxa luzeska bat zeraman beheko partean. *Alrededor de...* Irakurri ezina egin zitzaion hirugarren hitza, baina, ordutik, bezeroak *Secuencias alrededor de...* deitzen dio sei koadro txikien bildumari.

Ormazabalen obra gehienak ere obra handi baten kapituluak dira, saga bateko atalak, *Secuencias alrededor de...* izeneko proiektu luze bat.

BOST

Eta orain arratsaldeak argia galtzen du,
gauak sosegua ekartzen.

Claudio Rodríguez, *Montamartako muinoak dio*

BIZITZAREN AZKEN ALDIAN Ormazabalen pinturaren sosegua iluntzen ari zen, tunel batera sartu berri den trenean egiten den iluntasunaren antzera. Luma eta tinta beltzarekin paper zurian marraztutako paisaia bakartiak, lehorrak dira azken garaiko lan batzuk, eta harri lakar, arbola erdi lehor eta sastraka zakarretara doa artistaren begirada. Itzalik gabeko marrazki bakartiak dira, sosegurik gabeak, zeru desatsegin baten pean. Guztiz urruti daude koadro abstraktuetako barne-trenputik. Baina agian Ormazabalen errealdetan dira, ez zentzu deskriptibo soilean bakarrik, baita existentzian ere. Poetika zakarra eskaintzen dute. Horizonte luzeko grabatuak dira asko eta asko. Gizakiaren esku-hartzearen inolako presentziarik gabeak. Juan Rulforen *Pedro Paramo* nobelako paisaiak izan daitezke. Edo Rulfok berak, oso fotografo fina baitzen, egindako argazkiak. Orain urte batzuk Zarauzko Photomuseum-en egon ziren. Ormazabal irudikatzen ari naiz Rulforen argazkiei begira.

ILUNTZEN HASI AURREKO momentuan, argiak zeruko ilunabarrari pasoa ematen hasi berritan ia sortzen diren magma kromatuetara naramate Ormazabalen azken urteetako lanek. Azken aldiko iluntasunak iluntasun, *sosegua* da Iñigo Ormazabalen pintura definitzeko bururatzen zaidan hitzik egokiena. Eta *gardentasun estilistikoa* da haren pinturen emaitza laburbiltzeko bururatzen zaidan espresioa.

Artezaleok Iñigo Ormazabalen ibilbide estetikoaren mapa zabala, mapa ugaria ezagutzeko aukera aparta dugu Zarauzko Udalak antolatu duen erakusketa bikoitzean. Aukera aparta da, baita ere, apal bezain maisuki lan egiten zuen artistaren obra gozatzeko.

Talentuko pintoreek –berdin dio ezezagunak diren edo famatuak–seketu bat daukate, transferitu ezin den egia artistiko bat. Iñigo Ormazabalek badu berea, markatua, originala. Haren koadroetan dago.

AZKEN HITZAK

PANDEMIA AGERTU ZENETIK urtebetera doi hil zen Iñigo Ormazabal: minbiziak eraman zuen covid-19.ak ekarritako hondamendiaren erdian. Minbiziaz gainera, arrisku larri erantsiaren kezka zeraman Ormazabalen gorputz jada gaixoak: margolariak hilabeteak egin zituen gaixotasun errealarari kutsatze probablea erantsiko ote zitzaien.

Bada, naturaren aurpegi ankerrena ezagutu zuen azken aldian. Abelera krudelagorik... Baina errealtatea bada aukera bat ere bizitzaren alde duina ezagutzeko. Pandemiaren sasoi hartan, jendeak etxean errenditu behar izan zuenean, kalean apenas zebilenean autorik, airea eta lur-gaina -zelaiak, basoak, ibaiak...- garbitzen hasi ziren eta purifikatzen. Egin zitzaizkien kalte guztietatik errekuaratzeko bidean zeuden. Pandemiaren urte hartako gogorrean, udaberri betean, inoiz ez bezala barreiatu zen txorien txio-festa, airearen neurrak guztiek ematen zuten hobekuntza sekulakoaren berri, gauez betiko galdutzat geneuzkan ipurtargiak ugaritzen hasi ziren eta haien argi berde jostariak baziren, baita ere, dei bat abisu emateko zer egiten ari ginen naturarekin, Ormazabalen begiradak hainbeste miresten zuen edertasunarekin.

Pintorea, heriotza hurbil duela, naturan gertatzen ari den mirariarekin txundituta. Oinazetik baldin bazen ere --edo oinazeak lagundu ziolako-- seguru ohartzen zela gertatzen ari ziren aldaketez eta ospatu zuela naturaren alde gozagarria, bizitza osoa eskaini zion inspirazio-iturria.

Hil zen. Ordutik, mundua lehenera itzuli da. Naturari zor zaion errespetua hondatzen segitzen dugu.

Siempre la claridad viene del cielo;
Es un don; no se halla entre las cosas
sino muy por encima.
Claudio Rodríguez, *Don de la ebriedad*

COMO CASI CADA TARDE, los alumnos han entrado al estudio. Allí está Ormazabal, con su delantal lleno de salpicones de pintura, la suya y la de sus alumnos: hay que ganarse la vida, pues los tiempos de bonanza no existen para los artistas. Pero, a pesar de todos los pesares, le gusta dar clase. «Con quien más aprendo es con los alumnos», suele decir. En lugar de imponerse, procura ofrecerles alternativas estéticas.

Los alumnos profesan un gran respeto a Ormazabal y él los trata con consideración. Habla siempre de manera sencilla y llana sobre el arte, tanto con sus alumnos como con sus amigos, sin palabras huecas, haciéndose entender. Hablar de sus cuadros le incomoda. Ante cualquier pregunta, hace un gesto esquivo, como queriendo decir: “pregúntaselo a los cuadros”.

Las obras de Ormazabal me inspiran sosiego. Una alegría vital íntima. Serenidad en un mundo sin rumbo. Esa es una de las características principales de las obras de Iñigo Ormazabal: un sosiego estético, que impregna generosamente casi toda su obra.

«LA TRAYECTORIA DE IÑIGO ORMAZABAL arranca en la década de los 70, con el despertar de las Nuevas Figuras y Realismos, y la consolidación de las corrientes abstractas. [...]. A caballo entre ambas tendencias ha surgido y discurrido la trayectoria de este pintor», en palabras del crítico de arte Edorta Kortadi.

El pintor Daniel Txopitea conocía bien la obra de su amigo Iñigo Ormazabal. Define así su pintura en el libro *Zarautz bihotz-bihotzetik*, que recoge entrevistas realizadas a varios artistas de Zarautz:

«La primera visión al taller de Ormazabal sugiere un caos en el que lienzos, colores, papeles, herramientas, libros y otros muchos productos de génesis o destino desconocidos se disputan el privilegio de desenquillato, de antiguas rentas, se diría. Error del observador». Al mencionar el *desenquillato* y la *antigua renta*, Txopitea se refiere a la tradición. Pero si uno observa más detenidamente ese caos, los cuadros de Ormazabal adquieren la precisión de un mecanismo de relojería. Del caos a la precisión de un buen reloj, por tanto.

Fue en 1997, en el punto álgido de los ocres de Ormazabal, cuando Txopitea entrevistó a su amigo. Los últimos años del siglo anterior y los primeros del nuevo siglo enmarcan el período de plena madurez de Ormazabal, y fue entonces cuando comenzó a recoger los deseados frutos de su trayectoria. Durante el nuevo siglo intentará afianzar las variaciones conseguidas y las nuevas oportunidades.

Toda la escala cromática de los ocres de la tierra, la arena y la piedra arenisca se extiende generosa en las obras de Ormazabal, sobre todo en el ilimitado espacio de la abstracción. Domina con maestría la gama de los ocres y sus posibilidades, es cada vez más flexible al combinar los ocres con otros colores; los azules vivos, los verdes insolentes y los rojos chispeantes como el bermellón son más intensos como contrapunto de los ocres...

Ormazabal, sobre todo en los cuadros de gran formato, integra en una estructura a modo de collage las posibilidades que le ofrecen los colores, las texturas, las grietas, los espráis, los papeles, los cartones y demás elementos sencillos, y es que las pinturas abstractas más significativas de Ormazabal siguen a menudo la estrategia de un collage.

Los lienzos ocres de Ormazabal –permítaseme referirme así al aspecto más destacable de su trabajo– parecen collages compuestos de objetos diversos; a veces no son en realidad collages, a pesar de que así nos lo sugiere el efecto producido por los cuadros; otras veces, sin embargo, son collages auténticos, aunque en ellos el observador apenas perciba papel, cartulina, pegamento o tela fina alguna en el lienzo. Cada uno de los cuadros sugiere un lienzo sin collage alguno, donde son los colores los que forman distintos planos, los que crean una ilusión de volumen ante las formas cuadradas y rectangulares, buscando el contraste entre las formas y los colores y, valiéndonos de la metáfora de Txopitea, controlando con la precisión de un reloj la armonía del cuadro.

Al final de su trayectoria profesional, Ormazabal comienza también a estilizar el esquema que tan bien domina. Al fondo del cuadro, un paisaje sereno, que yo llamaría poético o espiritual: se trata de un trabajo muy delicado; transmite paz y serenidad. El artista sigue utilizando los mismos colores, pero hace uso de los tonos y gamas más delicados, más serenos. Y los espectadores sentiríamos un sosiego absoluto si en el centro mismo de estos cuadros, de izquierda a derecha, no cobraran protagonismo unas rayas o puntos que, como si de rayos o grietas en el cielo o como si de alambre de espino se tratara, rasgan la hermosa serenidad del paisaje abstracto. Parecen amenazas, la negación de la trayectoria anterior. O quizás la negación del paraíso (algunos alambres de espino podrían evocar el holocausto al espectador).

Ormazabal estaba *sacrificando* su trayectoria hasta entonces más fructífera para crear cuadros mejores, obras desasosegantes.

PAUL VALÉRY DICE ASÍ EN SU POEMA *El cementerio marino*... «El mar, el mar, siempre recomenzando». Así aparece también el mar en las marinas de Ormazabal: siempre recomenzando.

Muchos conocen a Iñigo Ormazabal por sus marinas. Pintó día a día, a veces por voluntad propia y otras muchas veces por encargo de sus clientes, todas las versiones del mar: el mar oscuro y el cristalino, el mar bravo y el sereno. La cotidianidad exige ganarse la vida y durante un largo tiempo Ormazabal pintó marinas, sobre todo en verano.

No hay referencias a tierra firme en sus cuadros. Son cuatro los elementos que componen sus marinas: la arena húmeda cambiante, el mar, el cielo y el cuarto componente es precisamente la ausencia de tierra firme; ni a un lado ni a otro aparecen los límites de Getaria o Moilarrí.

La presencia de tierra firme aporta concreción a una imagen. La ausencia de ella, por su parte, libertad, ausencia de límites. Si Ormazabal pinta el mar en total soledad, lo hace para dar forma a la idea del infinito. La tierra firme no cambia de un día para otro, ni de la noche al día, ni de una hora a otra. Sin embargo, la arena, el agua, las olas, el cielo cambian constantemente, al igual que sus colores y su forma. Nunca se repiten, jamás muestran el mismo rostro.

Puesto que el cielo, el mar y la arena son siempre cambiantes, son también originales siempre. Siendo siempre lo mismo, son siempre diferentes, siempre nuevos su color, su tono, su forma y todos los demás matices.

Son límites imprecisables, indefinibles para la mirada, casi infinitos; más o menos lo mismo que nos ocurre con nuestros sentimientos íntimos, tan diversos.

EN LA ÚLTIMA PARTE DE SU VIDA el sosiego de la pintura de Ormazabal se fue oscureciendo, como la oscuridad que de pronto se cierne sobre un tren al entrar en un túnel. Algunas de las obras de esta época, pintadas con pluma y tinta negra sobre papel blanco, son paisajes solitarios, áridos, y la mirada del artista parece dirigirse a piedras rugosas, árboles casi secos, maleza y broza. Son dibujos solitarios, sin sombras, sin sosiego, bajo un cielo desapacible. Formas totalmente alejadas de la calma interna de sus cuadros abstractos, pero son, quizás, sus obras más realistas, y no solo en un puro sentido descriptivo, sino también en un sentido existencial. Muestran una poética áspera. Muchos de ellos son grabados con un horizonte lejano, sin presencia alguna de la intervención humana. Podrían ser los paisajes de *Pedro Páramo*, de Juan Rulfo, o incluso fotografías hechas por Rulfo mismo, que era, además, un fotógrafo de gran talento. Hace unos años, esas fotografías se mostraron en el Photomuseum. Imagino a Ormazabal contemplándolas.

LAS OBRAS DEL ÚLTIMO PERÍODO del pintor me trasladan al momento justo anterior al crepúsculo, a los magmas cromáticos a los que da paso la luz cuando comienza a ceder ante el anochecer del cielo. Más allá de la oscuridad de la última época, *sosiego* es la palabra más adecuada que se me ocurre para definir la pintura de Ormazabal; y *pureza estilística* la expresión que resume el resultado de su pintura.

Los amantes del arte tenemos una oportunidad única para conocer el amplio mapa de la trayectoria estética de Iñigo Ormazabal en la doble exposición organizada por el ayuntamiento de Zarautz. Es además una ocasión inmejorable para gozar de la obra de un artista que trabajaba de forma tan humilde como magistral.

Los pintores dotados de talento, tanto los conocidos como los desconocidos para el público, guardan un secreto, una verdad artística intransferible. Iñigo Ormazabal la posee, una verdad marcada, original. Y está en sus cuadros.

ÚLTIMAS PALABRAS

Tú, luz, nunca serena
¿me vas a dar serenidad ahora?
Claudio Rodríguez, *Hacia la luz*

IÑIGO ORMAZABAL falleció apenas un año después de la aparición de la pandemia; se lo llevó un cáncer en medio del desastre provocado por la COVID-19. Además del cáncer, el cuerpo ya enfermo de Ormazabal sufrió durante casi un año la angustia de otro grave peligro: el de un posible contagio que se añadiría a su enfermedad ya entonces real.

En sus últimos días conoció la faceta más despiadada de la naturaleza. Es difícil imaginar una situación más cruel... Pero la realidad es también una oportunidad para conocer el aspecto más digno y generoso de la vida. Aquel año de la pandemia, cuando la gente tuvo que encerrarse en casa, cuando apenas había coches en las calles, el aire y la superficie terrestre –el campo, los bosques, los ríos ...– respiraron aliviados, se purificaron. Parecían estar en vías de recuperación tras todo el daño que les habíamos infringido. En el período más duro de aquella pandemia, en plena primavera, el canto de los pájaros se intensificó como nunca, las mediciones de la calidad del aire daban cuenta de una mejora sin precedentes, por las noches comenzaron a multiplicarse las luciérnagas que dábamos casi por perdidas y su luz verde juguetona parecía además un aviso, una llamada de atención sobre lo que estábamos haciendo con la naturaleza, con la belleza que tanto ansiaba la mirada de Ormazabal.

Imagino al pintor admirado ante el milagro que estaba sucediendo en la naturaleza. Aunque fuera a partir del dolor –o quizás porque el dolor le ayudó–, estoy seguro de que se percató de los cambios que se estaban produciendo y que celebró la faceta placentera de la naturaleza, la fuente de inspiración a la que ofreció toda su vida. Murió. Desde entonces, el mundo ha vuelto a las andadas. Seguimos mancillando el respeto que se le debe a la naturaleza.

LANA / OBRA



IZENIK GABE. Olíoa ehunean – 100 x 81 cm, 2019



IZENIK GABE. Olíoa ehunean - 100 x 81 cm, 2009



IZENIK GABE. Olíoa ehunean - 92 x 92 cm, 2007



IZENIK GABE. Olăoia paperean - 119 x 78 cm, 2007



IZENIK GABE. Olíoa ehunean - 100 x 81 cm, 2018



EKAIN. Olioa ehunean - 81 x 195 cm, 2001



IZENIK GABE. Olíoa ehunean – 122 x 81 cm, 2016



IZENIK GABE. Olloa ehunean - 93 x 73 cm, 2017



IZENIK GABE. Olioa ehunean – 100 x 81 cm, 2019

Iñigo Ormazabal

IÑIGO ORMAZABAL

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

2023

TORRE LUZEA

ABUZTUAK 10 AGOSTO - IRAILAK 17 SEPTIEMBRE

EGUNERO / TODOS LOS DÍAS

18:00 - 20:00



ZARAUZKO UDALA

KULTURA DEPARTAMENTUA



MAHASTIA. Olioa paperean - 100 x 81 cm, 2011



IZENIK GABE. Olioa ehunean - 100 x 81 cm, 2019



IZENIK GABE. Olíoa ehunean - 1990



IZENIK GABE. Olioa egurrean - 90 x 46 cm, 2014



IZENIK GABE. Olioa ehunean – 92 x 73 cm, 1995



Zarauzko Udalak prestatutako edizioa
Sanz Enea eta Torre Luzean
egindako erakusketen harira
2023ko Uda

*Edición preparada
por el Ayuntamiento de Zarautz con motivo de
las exposiciones de Sanz Enea y Torre Luzea
Verano de 2023*





ZARAUZKO UDALA

♦
KULTURA DEPARTAMENTUA